



TEKNOLOGIA. 2020-21 IKASTURTERAKO ORIENTABIDEAK

Dokumentu honen bidez, Teknologia ikasgaiaren normaltasun berria orientatzeko zenbait gomendio proposatzen dira:

1. AURRE-EBALUAZIOA EGITEA ETA IKASTURTERAKO PROGRAMAZIOA ANTOLATZEA:

Aurreko ikasturteko martxotik aurrera eman zen irakaskuntza eraldaketa eta birmoldaketa kontuta hartuta, komenigarria litzateke ikasturte hasiera honetan kontutan hartzea:

- Telelanean egindako jardunaren balorazioa: erabilitako materialeak, proposatutako jarduerak, irakasleekin izandako koordinazioa, ikasleekin harremanak, ebaluatzeko dinamikak...
- Programazioan landu gabe gelditu ziren jarduerak identifikatu eta aurtengo programazioan txertatu (ohiko moduan egiten bada ere, oraingoan oraindik garrantzitsuagoa izan daiteke).
- Zailtasunak izan dituzten ikaslearen egoerak baloratu aniztasunari erantzun egokia bermatzeko orduan. Ere honetan hobetu beharreko alderdiak identifikatu.
- Teknologia mintegiko irakasleekin koordinazioan hartutako erabakien inguruan hausnartu eta partekatu. Hobetze proposamen orokorrak identifikatu, mintegi edota koordinazio saioetan lantzeko.

2. CURRICULUM ASPEKTUAK

Zentroak ezarri duen planari egokituz, aurreikuspen batzuk ezarriko dira posibleak diren hiru egoerentzako: presentziazko irakaskuntza, mistoa eta onlinekoa. Egoera bakoitzeko jarduerak lehentasunaren arabera sailkatuko dira.

Presentziazko irakaskuntza. Ikasturte hasieran (batez ere lehenengo mailakoekin) bi lan ildo nagusi planteatuko dira,



Alde batetik, teknologia gelaren erabileran inguruan arituko gara. Gelaren ezaugarriak eta lan dinamikak; segurtasun eta higiene arauak (ikus. 3. puntua). Prozesu teknologikoa.

Bestetik, eraikuntza fasea erraztutako proiektu teknologiko bat planteatuko dugu; hau da, material eta erreminta minimoekin garatzekoa. Aldi berean, proiektuko fase bakoitza garatzen dugun heinean, ikastetxeko ingurune birtualean ikasleak trebatuko ditugu. Eduki multzoak lantzeko eta proiektu faseetan garatzen eta erabiltzen ditugun baliabide digitalak aurkeztu eta erabiliko ditugu: nabigatzaile, bilatzaile, ofimatika, 2D/3D diseinu, simuladoreak,...

On-lineko irakaskuntza. Aurreko puntuan azaldu den moduan, ikasle guztiakin landu beharko ditugu gailu digitalen bidez beharrezkoak diren baliabideak online aritzeko modu autonomoan.

Egoeraren ondorioz, osasun egoera dela eta, etxean berriro geratzekotan, aurreko esperientziatik egindako ebaluazioaren ondorioetan oinarrituko gara garatu beharreko jardueren aukeraketa egiteko. Jarduera horiek prestatuta izan beharko ditugu, eta ikasleekin adostuta ere, ikastetxeak erabiltzen duen plataformaren bitartez aurrera eramán ahal izateko (moodle, classroom, e-mail, meet, whatsapp, zoom)...

Presentziako eta on-lineko irakaskuntza. Ikastetxearen plangintzan neurrien artean zenbait saio murriztea balitz, aurreko proposamen bietatik aukeratu tailerreko jarduerak ikastetxean jorrazteko eta utzi bestelakoak (banakakoak zein taldekoak) etxetik lantzeko, egoerari egokitzuz.

3. JARDUERAK, ESPAZIOAK eta erabili beharreko MATERIALAK eta ERREMINTAK

Bi aukera aurreikusten dira: talde bakoitzaren gela naturala erabiltzea edo, ohi den bezala, taldeak teknologiako gelatik pasatzea. Teknologia tailerra erabiltzeko jarraibideak lirarteke :

- Gelako sarrera/irteeretan sortzen diren ikasle pilaketak saihestu beharko dira. Horretarako, eta ahal den heinean, irakasleak ikasleak jasoko ditu jatorrizko



- gelatan eta tailerrera bideratuko ditu distantziak errespetatuz. Bukatzerakoan ere erreferentziazko gelaraino lagunduko die.
- Ikasleak lanerako behar-beharrezkoa den materiala eramango du, besterik ez.
- Gelan egon beharreko higiene-materiala:
 - Gel-banagailua edo soluzio hidroalkoholikoak.
 - Paperezko mukizapiak.
 - Poltsadun paperontzi edo tapa eta pedala dituen edukiontzia.
- Sarrera-irteeran ikasleek eskuak garbituko dituzte xaboia edo gel hidroalkoholarekin.
- Talde aldaketa ematerakoan garbitzeko aukerarik ez bada egon, txartelak erabiliko dira garbitu/garbitu-gabeko guneak adieraziz. Sartzen direnek garbiketa lana egin beharko dute desinfekzio lana eginda dagoela ziurtatzeko. Garbiketarako erabilitako materiala (zapia,...) botako da eta eskuak garbituko dira ondoren.
- Taldekako lanak (erreminta, materialen erabilerari dagokionez,...) ekiditu egingo dira ahal den heinean. Hasiera batean bakarkako diseinu eta plangintza lanak burutuko dira prozesu teknologikoari jarraituz eta IKT tresnak erabiliz dokumentazioa sortzeko/biltzeko.
- Ikasleak taldekatu ezker (hainbat tailerretan beste aukerarik ez da egongo), mahai bakoitzean dauden ikasleek beti leku bera hartuko dute (pertsonek artean distantzia errespetatuz); Talde bakoitza bere material/erremintekin ezin bada hornitu, erreminta eta material arduradunak bakarrik egin ahal izango ditu desplazamenduak. Inoiz baino garrantzitsuagoa izango da plangintza egokia egitea taldean eta erregistro-orriak betetzea.
- Mahaiak eta aulkiak ezingo dira lekuz aldatu.
- Irakasleak bere gune "garbia" edukiko du (irakaslearen mahaiak izan daitezke).
- Gelako espazioak ahalik eta hobekien aprobetxatzeko erabiltzen ez diren altzariak kendu egingo dira.
- Ikasleen errotazioa gertatzen den lekua denez, aireztatzen ahalik eta handiena izan behar da; leihoak beti irekita egon behar dira (gela hutsik egon arren). Modu horretan atek eta leihoak ireki-ixteko mekanismoen manipulazioa ekiditzen da hein handi batean. Aukera bat izan daitezke 3D inprimatutako objektuetaz baliatzea. Ikusi adibide [hau](#).



- Ezin bada beti irekita mantendu gutxienez, ikasleak iritsi baino 5-10 minutu lehenago, eskola-saio bakoitzaren amaieran, atsedendian eta lanaldia amaitzean.
- Material eta erreminten hornidura nahikoa denean talde bakoitzak berea erabiliko du. Taldeko kide ezberdinek manipulatzeko badituzte higiene-neurriak zorrotz hartu beharko dituzte, eta ez dute aurpegia ukitu behar.
- Material banaketan ikasle arduradunak bakarrik mugituko dira.
- Batez ere hasierako mailetan, tresnek uneoro kontrolatuta egon behar dute, eta ezin dira leku batean egon non ikasleek haietarako zuzeneko sarbidea duten.
- Erremintak ezin dira eskuz-esku pasatu kontrolik gabe. Tresna bakoitza erabili ondoren, beste ikasle batek erabili baino lehen desinfektatu beharko da.
- Desinfekzio prozesua objektu motaren (porotsua izan ala ez,...) edo/eta material motaren arabera izango da. Prozedura bat baino gehiago erabili daitezke:
 - Urarekin eta xaboiarekin zuzenean garbitzea.
 - Ura eta lixiba soluzio higienizatzailearekin garbitzea.
 - 70º-ko alkohol-dun espraia erabiltzea.
 - Elektronikako osagaiak garbitzeko alkohol isopropiliko mikrozuntzeko baieta bitartez aplikatzea gomendatzen da. Urik gabekoa osagaiak ez herdoiltzeko. Bereziki, burrunbagailuak babestu beharko lirateke.
- Erreminten erabileraren inguruko erregistro-orria bete beharko da.
- Eskuak garbitzeko ura eta xaboia erabiliko da tailerreko iturrian. Ikasle pilaketak ekiditeko gel hidroalkoholkoa erabili ahal izango da ere.
- Iturriari erango zaio paper bat erabilia. Erabili ondoren bota egingo da.
- Iturria bakarrik helburu horrekin erabiliko da; hau da, eskuak garbitzeko.
- Lana bukatzean talde bakoitzeko arduraduna erabilitako materialeak desinfektatzeaz arduratuko da.
- Bukatzerakoan gainazal guztiak garbi utziko dira desinfekzio lanak errazteko; batez ere eremu komunak.



Talde naturalaren gela lan praktikoetarako erabiltzeko hauek lirateke jarraibideak:

- Bakarkako proiektu txikiak planteatu daitezke.
- Norberak eramandako materiala erabiltzea proposatuko litzateke (kartoiak, arkatzak, erregelak, guraizeak,...). Bukaeran ondo jaso edo/eta desinfektatu egin beharko dira gainazalekin kontaktuak ahalik eta gehien ekidituz.
- Ez da baimenduko ikasleen arteko material trukaketa (erregelak, kalkulagaikua,...)
- Ordenagailua erabili ezkeror norberak berea erabili beharko du ahal den heinean. Bestela ere, bukaeran desinfektatu beharko dira.
- Printzipioz bakarkako lanak lehenestuko dira. Hala ere, modu birtualean jarduera mota asko garatzeko aukera egongo litzateke online baliabideak erabiliz.
- Lanak ikastetxeko ingurune birtualaren bitartez bideratuko dira (moodle,...).
- Klasearen hasieran eta bukaeran ikasleek eskuak garbituko dituzte batez ere lan praktikoren bat garatu badute (marrazketa,...).
- Bestelako neurri guztiak (maskara derrigorrezkoa, distantziak, aireztapena...) modu berean aplikagarriak lirateke.

4. SAIOEN ANTOLAKETA

Aurretik aipatutako baldintzetan errazago aritzeko gomendagarria litzateke saioak binaka (jarraian) izatea (lehenengo mailatan). Ikasleen mugimendua asko gutxituko litzateke ikastetxean (sarrera-irteeretan) eta hasi-bukatzeko praktikak planteatu ahal izango lirateke. Praktikak laburragoak izanik taldea ere bi zatitan banatu ahal izango genuke; alde batetik talde erdia dokumentazio edo diseinu lana garatuz (bistak, informazio kudeaketa, bilaketa,...), eta bestetik, beste talde erdia praktikak egiteko tailerraren eremuan kokatuz (erreminta zehatzeko praktika, erredukzio sistemak muntatu, elektronikako oinarrizko zirkuitua,...).

Modu horretan STEAM proiektuen garapena bideragarriagoa litzateke ere.

Edonola ere, lehenengo puntuan aipatutako ebaluazioa kontutan izanda, berriazko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin esku hartzea egokitzea ere ez da ahaztu behar.



5. FAMILIEKIKO HARREMANAK ETA IRAKASLE-TUTOREAREKIN KOORDINAZIOA

Gomendagarria da familiekin harremanak izatea (are gehiago online ikasketa formatuarekin aritu beharko bagenu) ikasleen ongizatea, motibazioa eta egoera emozional ona dela ziurtatzeko. Zailtasunak dituzten ikasleen kasuan familiekiko harremana areagotu egin behar da, euren parte hartzea eta laguntza ere, ahal den neurrian, bermatzeko.

Izandako kontaktuen erregistroa egitea eta tutoreekin komunikatzeko edo/eta koordinatzeko sistemak zehaztea gomendatzen da.